


ARNasa GARA

Hedabideetarako dossier informatiboa



laguntzaileak:

ARNASA GARA AURKEZPENA

Joshua Fishman soziolinguistak *Reversing Language Shift* (1991) liburuan hizkuntza baten biziraupenerako eta biziberritzerako breathing space edota arnagune bat zein garrantzitsua den nabarmendu zuenetik, hizkuntzen biziberritze-prozesuetan iparrorratz bihurtu da arnaguneak zaintzea. Euskal Herrian ere lan handia egin da ildo horretan. Ikerketa eta programa soziolinguistiko ugari egin dira azken 20 urteetan herri hauen egoera soziala ezagutzeko eta zaintzeko asmoz. UEMA eta neurri batean Euskalgintzaren Kontseilua ere, besteak beste, eragile garrantzitsuak izan dira arnaguneen ezagutzan sakontzeko orduan, eta egindako lanek arnaguneen egoeren bilakaeraren berri eman digute. Horrez gain, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak 86 udal biltzen ditu gaur egun, guztien artean 253.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatuz. Kontuan hartu behar dira, halaber, UEMAko kide ez diren gainontzeko arnaguneak, guztien artean osatzen baitute Euskal Herriko arnaguneen mapa.

Hedabideetan, euskalgintzan eta hizkuntzapolitikako arduradunengan mezua errotu baldin bada ere, arnaguneen kontzeptua eta arnaguneen garrantzia arrotz samarra da herritar gehienentzat oraindik. Hizkuntza biziberritzerako funtsezkoak dira arnaguneak, bertan modu naturalean bizi ahal delako, transmisioa ziurtatuta dagoelako eta hizkuntzaren hedapenean laguntzen dutelako.

Horregatik, 2019an zehar ARNASA GARA kanpaina garatu zuen Hiruko Itunak UEMArenkin batera. EITBk ekoizitako 'Kartzela' serie digitala eta herriz herri egindako ekitaldiak izan ziren kanpainaren muina. Denetara 21 herrietan egin ziren aurkezpen ekitaldiak eta 1.000 lagun baino gehiago batu ziren, kezkak, gogoetak eta erronkak konpartituz.

laz, berriz, kanpainaren bigarren faseari ekin zitzaion, lehenengo fasetik ateratako ondorioetan sakontzeko helburuarekin. 'ARNASA GARA egunerokoan zer?' kanpainak arnaguneei lotutako zortzi ideia zehatz landu

zituen, astean behin sareratu zen esketx baten bidez. Helburua arnaguneetako herritarrek euren arazo eta erronketatik abiatuta ahalduntzerako urratsa ematea zen, arnaguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzearekin batera.

Zortzi esketxak sare sozialen eta mezularitza aplikazioen bidez zabaldu ziren, eta esketx bakoitzaren inguruko elkarrizketa digitala ere bideratu zuen *Berria* egunkariak, musikarien, kazetarien eta aktoreen laguntzarekin. arnasagara.eus/bideoak loturan ikus daitezke guztiak.

ARNASGUNEEN EZAUGARRIAK

Arnaguneak eta udalerrri euskaldunak zein diren adierazteko ez dago marra zurrun bat; oro har, euskararen ezagutza %80 ingurukoa dutenak sartzen dira multzo horretan. Honako ezaugarriak hauek dituzte arnaguneek:

Lehen hizkuntza

Bizilagunen lehen hizkuntza euskara izan ohi da, eta erabat naturala da euskaraz bizitzea eremu guztietan. Oso faktore garrantzitsua da hori, hizkuntzak iraungo badu. Horrez gain, euskalkidunak direla nabarmendu behar da.

Transmisioa

Arnaguneetan, belaunaldiz belaunaldi modu naturalean transmititu da hizkuntza. Bizi-bizirik dago euskara arnaguneetan eta egunero berritzen ari da. Garai eta ohitura berrietara egokitzen da euskara arnaguneetan, bertako bizilagunek egoera guztietarako erabiltzen dutelako. Azken batean, arnaguneetan euskaraz egitea da arau soziala. Goitik behera nahiz modu horizontalean gertatzen den transmisioa da, herriko arlo guztietara zein herritar bakoitzaren esparru pribatura iristen dena.

Hauskortasuna

Lurgune euskaldunean euskararen indize altuenak dituzten herriak, arnaguneak alegia, biztanle gutxien dituztenak dira, oro har. Herri txiki horiek, hizkuntza-errealitate ahulagoa dutenez, aldaketen aurrean

sentikorragoak dira eta hauskortasun-maila altuagoa dute. Azken hamarkadetan izandako aldaketa sozioekonomikoek eragin zuzena izan dute udalerrri euskaldunetan, baina arnasmuneetan bereziki. Herrian gertatzen diren aldaketek eragina dute hiztunengan eta hizkuntzaren ikuspegi orokorrean.

ORAIN ARTEKO ONDORIOAK

2019an arnasmuneetako herritarrekin egindako saioetan jasotako ekarpenetatik, iazko bideoetan landu ziren ondorio hauek nabarmendu ziren:

Arnasmuneetan herritarrak **euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz**, euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz, baina euskararen gainbehera sumatzen dute.

Lagun-eremuan gehiengoak euskaraz egiten duen arren, **erdaldunen bat dagoenean gaztelerara salto** egiten dutela aipatzen da. Batez ere gazteen kasuan.

Geroz eta ohitura gehiago dago hizkuntza batetik bestera saltoka egiteko eta **hizketaldi elebidunak** ohikoak izaten dira.

Haur eta gaztetxoek erabileran kezka dago. Pertzepzio orokorra da haurrek **geroz eta gehiago egiten dutela gazteleraz**.

Herritik ateratzean **euskarari kontzienteki eusten dioten gehienak gazteak dira**.

Aurreiritzi batzuk badaude "euskalduna" izan ahal den horien inguruan. Atzerritarrekin lehenengo hitza euskaraz egiterako orduan, aurreiritziak daude eta ariketa kontziente bezala hartzen dutenek soilik egiten dute lehenengo hitza euskaraz.

Euskarak berezko duen hizkera aniztasunaren inguruan **konplexuak** daude, euskararekiko eta norberaren euskalkiekiko.

Norberaren ingurua **euskalduntzeko gaitasunak harro sentitzea** eragiten du orokorrean, batez ere, herritik kanpo.

ARNASGUNEEN GARRANTZIA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN

Eredua

Arnasmuneetako herritarrak eredu dira euskararen normalkuntzan. Erakutsi dute posible dela euskaraz bizi den herria, eta posible dela euskaraz egitea bizitzako esparru guztietan: lagunartea, lana, erosketak... Gaur egun, gainera, arnasmuneetako erakunde asko ere eredu dira, eta erakutsi dute euskara politikarako eta administrazioarako hizkuntza ere badela.

Biziberritzea

Euskara arau soziala denez, herritarrak herriko sektore guztietan aritzen dira euskaraz, ahozko komunikazioan bereziki; hizkera informalak eta naturalak hitz eta molde berriak ekartzen dizkio euskarari, hizkuntza batek ezinbestekoa duen berrikuntza ekarriz, egunero biziberrituz.

Hedapena

Arnasmuneek euren ereduarekin, euskara XXI. mendeko hizkuntza dela-eta, bizitza euskaraz egin daitekeela gogorarazten dute egunero. Bestetik, bertako herritarrak gainontzeko euskaldunekin hizketan daudenean euskaraz aritzeko joera gailentzen da, euskara-ohiturak hedatuz.

ARNASGUNEAK ANTZERKI BEKA

UEMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin abiarazitako ARNASA GARA kanpainaren baitan, *Arnasguneak* antzerki sorkuntzarako beka sortu zuten iaz, udazkenean, arnasguneen garrantzia jendarteratzeko antzezlan bat sortzeko. Aurkeztu diren bederlatzi egitasmoak aztertu ondoren, Lesakako Mairu Antzerki Tailerra saritzea erabaki du epaimahaiak. Guztira 23.000 euro jasoko dituzte, antzezlanaren beka-aren oinarrietan zehaztutako baldintzen arabera sortzeko eta ekoizteko. Sormen prozesuan Dinamoia Sormen Gunea erabiltzeko aukera ere izango du taldeak. Antzezlanaren, berriz, 2022ko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatuko dute.

Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, Azpeitiko Udalaren, Dinamoia Sormen Gunearen eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen ordezkari banak osatu dute epaimahaia, eta aurkeztu diren bederlatzi lanak aztertuta, erabaki dute Mairu Antzerki Tailerraren *Intxaurra* antzezlanari ematea Arnasguneak antzerki sorkuntzarako beka.

Manex Fusch izango da antzezlanaren zuzendaria, eta inguratzen gaituen ekosistemak guregan duen eragina islatuko du taldeak, Gaizka Sarasolak idatzitako testuan oinarrituta. Aktoreak, berriz, Ainara Ribera, Gaizka Sarasola, Iban Garro, Josune Etxepare Juanen Saralegi eta Ritxi Abril izango dira. Horiez gain, Ibai Gogortzak (soinu diseinua), Andoni Mendizabalek (argi diseinua), Eduardo Condek (atreztoa eta eszenografia) eta Martxel Rodriguezek (ekoizpena) osatuko dute taldea.

Ingurunearen eragina herriengan, hizkuntzengan eta jendearengan

Gaixorik dagoen Terexaren istorioaren bidez islatuko dute deialdiak eskatutakoa: arnasguneen garrantzia. Horretara heltzeko, ordea, inguruneak herriengan, hizkuntzengan eta jendearengana duen eragina islatzeko modua erabiliko dute *Intxaurra* antzezlanarekin. Taldeak proiektuaren laburpenean adierazi

duenez, “Terexa gaixorik dago, baina ez bera ez du bere osasun egoerak arduratzen. Etxeko intxaurrondoaren osasunak kezkatzen du. Intxaurrondoak ere gaitza badu. Onddoren batek kalte egiten dio, eta fruituak, kanpoko azal eta guzi erortzen dira lurrera. Azalak intxaurrak ito eta usteltzen ditu. Terexak ez du sendagaiarekin asmatzen. Larritasunak, gaixotasunarekin batera, Terexa itotzen du. Gero eta nekezagoa zaio arnasa hartzea. Terexaren sentimenduen eta emozioen bidez, inguratzen gaituen ekosistemak, inguratzen gaituzten baldintzek, guregan duen eragina azalaztea da antzezlanaren asmoa. Inguruko baldintzek eta ezaugarriek eragiten dutelako herriengan, hizkuntzengan, jendearengan... inguratzen duten lurrek landareengana eragiten duten moduan”.

Erabaki zaila, kalitate handiko hainbat egitasmo interesgarri aurkeztu direlako

Mairu Antzerki Tailerraren *Intxaurra* saritzeaz gain, epaimahaiak berariaz nabarmendu nahi izan du Arnasguneak antzerki sorkuntzarako deialdi honetan jasotako proposamen gehien kalitatea eta garrantzia. Zehazki, esku artean “kalitate handiko hainbat egitasmo interesgarri” izan dituela aipatu du epaimahaiak, eta “ez da erraza izan erabakia hartzea. Baina ez non aukeraturik ez zegoelako. Kontrakoa: ezinbestean lan bakar bat saritzera behartuta, interes handiko beste zenbait lan bidean geratu dira”.

FITXA TEKNIKOA

Antzezlanaren izena: **Intxaurra.**

Taldea: **Mairu Antzerki Tailerra.**

Proiektuan parte hartuko dutenen datuak eta eginkizunak:

Izena eta abizenak	Eginkizuna
Manex Fuchs	Zuzendaria
Ainara Ribera, Gaizka Sarasola, Iban Garro, Josune Etxepare, Juanen Saralegi eta Ritxi Abril	Aktoreak
Gaizka Sarasola	Testua eta dramaturgia
Ibai Gogortza	Soinu diseinua
Andoni Mendizabal	Argi diseinua
Eduardo Conde	Atrezzo / Eszenografia
Martxel Rodriguez	Ekoizpena

Sorkuntzarako kronograma proposamena:

Urtarrila-Martxoa	Gidoiaren sorkuntza.
Martxoa-Apirila	Zuzenketak eta testuaren orrazketa.
Maiatza-Ekaina	Aktorea eta pertsonaiak. Lehen pausoetatik sorkuntzara.
Uztaila	Muntaia orokorra. Antzezlana albaindu.
Abuztua	Egonaldiak. Egonaldi tekniko eta artistikoak.
Iraila-Urria	Bideoa eta argazkiak. Azken ukituak.
Azaroa	Entsegu orokorrak eta estreinaldia.

INFORMAZIO BALIAGARRIA

Sustatzaileak eta laguntzaileak

UEMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Azpeitiko Udalaren eta Azpeitiko Kulturaz Kooperatibaren laguntza ere izan dute beka hau bideratzeko. Izan ere, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatuko da beka honen laguntzarekin sortutako antzezlana. Gainera, Kulturaz Kooperatibak kudeatzen duen Dinamoa Sormen Gunea erabili ahal izango dute taldekideek sormen prozesuan, egonaldia barne, antolatzaileekin adostutako datetan, eta antolatzaileek ordainduta. Dinamoko sormen egonaldia bizpahiru astera arte luzatzeko aukera izango da, eta bertan espazioa, teknika, lotarako lekua eta otorduak barne sartuko dira.

Harremanetarako:

· Arnasa Gara kanpainari buruz.

UEMA komunikazioa:

komunikazioa@uema.eus

· Intxaurra antzezlari buruz.

Mairu Antzerki Tailerra:

mairuantzerki@gmail.com

Webgunea:

www.arnasagara.eus

Sare sozialak:

Instagram: @ArnasaGara

Facebook: Arnasa Gara

Twitter: @ArnasaGara

Mastodon: @ArnasaGara